

HITZAURREA

Irailan gaudenez Santa Krutzak ganean ditugu, eta elkarteon izenean festa onak igaro dituzuen opa dizuegu.

Jakina da Lezotar guztion artean LEZO aldizkaria (1988ko irailean kaleratua) herriko kultur batzordearen eskutik eta bertan herriko elkarte, idazle eta beste zenbaiten partaidetzarekin sortu zela. Gaurdaino 6. alea kaleratua eta 7. hemen doakizue.

Udaletxe aldaketa dela eta, beronek dakartzagun funtzionamendu aldaketaren medio, batzordeen desagertpenak... e.a., Lezoko elkarteok Lezo aldizkaria bertan behera utzi beharrean, Lezoko elkarte koordinakunde bezala aldizkariari jarraipena ematea behar beharrezkoa dela opa dugu, honek herriko kulturarako duen garrantziagaitik.

Aldi berean elkarteok, udalako batzordeek duten garrantzia azpimarratu nahi dugu, hau herriak udalan partehartzeko modurik zuzenena eta herriaren partaidetza udalan ezinbestekoa bait da.

Aurrez esandakoa Udalbatza berri honek kontutan izango duelakoan gaude.

Elkarteon mezu hau buka aurretik ezin ahaztu aurreko kultur batzordeko lehendakari izan den JOSEBA AURKENERENA, herriko kulturari, elkarte partaidetza eta talde lanari eman dion bultzada eta beronek lan honetan erakutsi digun jarrera irekia eta baikorragaitik.

Lezoko elkarteon izenean MILA ESKER!!

Adiorik ez!!

LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA